

seriedad la obra de regeneración nacional, vendrán grandes convulsiones á agitar de nuevo la maltrecha Península y como epílogo... mayores catástrofes que las actuales. ¡Dios nos libre de ellas! Y ténganse presentes los indicios de que Europa nos mira con lástima, pero atisbando nuestros pasos.

Ecco il problema

Esperamos que el juicio y la reflexión se sobrepondrán á las malas pasiones. Los bárbaros están en las puertas de Roma, y si el miedo al Tío Sam ha convertido sensatos á los revoltosos mejicanos y aun á los negros de Santo Domingo, es hora de que los españoles olviden sus calaveradas.

PABLO DE ALZOLA.

EGUBERRI KANTAK

¿Zer ote da lurean
gaur gertatzen dana?
¿zer albiste on dator
Jaungoiko lastana?

¿Zeñek alaitzen du gaur
Belengo atadia?
¿Zerk onela sendotzen
Kristauen adia?....

Außen bai dala ziñez
entzute gozua,
aingeruen kantakin
chirola soinua.

Zeru biurtu dala
munduak diruri,

ainbeste zorion da
goitikan iñuri.

¡Poztu bitez biotzak,
dena poztu bedi,
aitor dezagun poz au
orain eta beti!

Jauna gizon egin ta
gure mesedian
zerutatik eldu da
onunz gaberdian.

Zarrak eta gazteak
gizon ta emakume
aurchoa maitatzera
goazen geldí gabe.

¡Jaiki; eliz aldera
laistertu pausuak,
goazen zabaldutzero
biotz ta besuak!

Gozoago kemea
likurtaren baño
igo zagun otoitza
zeruetaraño.

Artzai taldeak ere
Belena dijoaz
ofrendak osatzera
mañureta joaz.

¡Agur mundu ontako
Maisu gidaria
laño bat ere ez dezun
ispillu garbia!

¡Betozen Jesús-en gana
errege narioiak!
¡betozen bere oñetan
uztera koroak!

Len aitormen gabeko
Jaun agintariak
arriturikan dauzka
aur jaio berriak.

¿Zer balio du oien
oparotasunak?
¿zer oien *tronu* edo
jarkoi urrehunak?

Dena lezakeana
izanik aurchon
oian ordezen opa du
gambela-zokoa.

Jaio eta Jesús-en
lenengo atsegina
izandu da, kristauak,
irintsi samina.

Beste gizonak ainbat
ez balitz bezela
billusik arkitzen da
Jaunik aundiena.

Guregan daukalarik
amorio garra
otzikaraz or dago
ume zerutarra.

Gu salbatzeagatik
emen sortu zera
¡O Jesús maitatia!
¡Jesús biotzen bera!

Bear aín ez izanik
ordaina laburra
¡Jauna entzun iguzu
otoitza samurra!

Jaun zerukoa eta
lurraren jabea,
izar dizdizaria
illun-kentzalea.

¡Arren, izan gaitzazu
Jaungoiko berdina
eriotzako orduan
zuretzako diña!

.

¡Poztu bitezen biotzak,
dena poztu bedi,
aitor dezagun pozen au
orain eta beti!

EMETERIO ARRESE.

